

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

235

AGINDUA, 2024ko abenduaren 10ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak –indarrean baitago, Euskadiko Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko martxoaren 30eko 2/2023 Legearen aurka ez doan guztian– 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorri eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera emango die nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2024ko abenduaren 3an egindako bilkuran, dagokion proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin. Era berean, II. eranskinean agertzen diren eskatzaileen eskaerak ukatzea, bertan jasotzen diren arrazoieta oinarrituta.

Bigarrena.– Deklarazioak agindu hau argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honen aurka, administrazio-bidea agortzen duenez, aukerako berraztertzeko errekurtsioa aurkez dakioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2025eko urtarrilaren 16a, osteguna

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 10a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.

2025eko urtarrilaren 16a, osteguna

I. ERANSKINA

GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Kategoria
Aguirregomezcorta Beitia, Urdax	1274/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Aizpurua Echave, Asier	1287/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Alvarez Urquizu, Estibaliz	1239/24/D	Beisbola eta softbolla	Kirolaria
Apilánez Ruiz de Zarate, Lucía	1248/24/D	Hipika	Kirolaria
Arrieta Arrieta, Amagoia	1275/24/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Arriortua Zorrilla, Imanol	1271/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Axpe Echave, Unai	1247/24/D	Tiro Olinpikoa	Kirolaria
Baigorri Alonso, Unai	1220/24/D	Gimnasia	Kirolaria
Barandiaran Lizarraga, Peru	1272/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Barrutieta Barrenetxea, Goreti	1223/24/D	Errugbia	Kirolaria
Basterra Ochoa, Jose	1296/24/D	Hockeya	Kirolaria
Bilbao Azpiazu, Itxaro	1268/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Bilbao Azpiazu, Koldo	1267/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Blanco Picaza, Izaro	1222/24/D	Boxeoa	Kirolaria
Criado Oliva, Afrika	1292/24/D	Patinajea	Kirolaria
Criere Martin, Andy	1281/24/D	Surfa	Kirolaria
Chourraut Yurramendi, Maialen	1249/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
De Santos Larrañaga, Eider	1245/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Echaniz Pal, Pau	1257/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Echaniz Peña, Javier	186/24/T	Piraguismoa	Teknikaria
Echezortu Sanz, Miguel	52/24/J	Txirrindularitza	Epailea
Eguiguren Beraza, Intza	1226/24/D	Futbola	Kirolaria
Erdoizan Oterino, Mikel	1291/24/D	Igeriketa	Kirolaria
Etxarri Aranburu, Izaro	1229/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Etxeberria Delgado, Odei	1262/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Fisher Obieta, Telmo	1252/24/D	Errugbia	Kirolaria
Francesena Uria Aitor	1277/24/D	Surfa	Kirolaria
Gana Fernandez, Irene	1255/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
García Zabalegui, Nerea	1256/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gobantes Abrisketa, Galder	1259/24/D	Herri Kirolak	Kirolaria
Goikoetxea Urbizu, Ainara	1297/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Gomez Basabe, Maider	1294/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Gonzalez Etxabarri Lazkano, Annette	1241/24/D	Surfa	Kirolaria
Gonzalez Etxabarri Lazkano, Janire	1240/24/D	Surfa	Kirolaria
Gonzalez Ferrero, Peio	1286/24/D	Patinajea	Kirolaria
Goñi de Virgala, Leire	1246/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Imaz Hosteins, Markel	1253/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Irazu Usandizaga, Xabier	184/24/T	Txirrindularitza	Teknikaria

2025eko urtarrilaren 16a, osteguna

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Kategoria
Iruretagoiena Urkola, Garikoitz	1242/24/D	Urpeko jarduerak	Kirolaria
Isasi Kristobal, Ziortza	1289/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Jimenez Elizondo, Ekain	1285/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Juaristi Esnaola, Irati	1244/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Kortabitarte Ramaio, Alain	1276/24/D	Patinajea	Kirolaria
Lacunza Elizalde, Irati	1235/24/D	Urpeko jarduerak	Kirolaria
Larrimbe Ibañez, Xabier	183/24/T	Gimnasia	Teknikaria
Lasa Iturain, Keoni	1288/24/D	Surfa	Kirolaria
Lizaso Bringas, Eki	1290/24/D	Halterofilia	Kirolaria
Loidi Romero, Sara	1278/24/D	Beisbola eta softbolla	Kirolaria
Lopez Aguirreurreta, Nora	1269/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Magdaleno Palacios, Ibai	1238/24/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Mandaluniz Ruiz, Maui	1228/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Michelena Muguerza, Fernando	1224/24/D	Tiro Olinpikoa	Kirolaria
Mouriz Dopico, David	1264/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Odriozola Echaniz, Maite	1254/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Peña Arriola, Iñigo	1216/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Sanchez Goyogana, Ane	1234/24/D	Arrauna	Kirolaria
Sarasua Egia, Olaia	1231/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Sastre Sanchez Vallejo, Iker	1273/24/D	Mahai Tenisa	Kirolaria
Segura Miranda, Alex	1258/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Segura Miranda, Haizea	1283/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Solabarrieta Txakartegi, Ager	1233/24/D	Tiro Olinpikoa	Kirolaria
Solaun Campos, Salma	1227/24/D	Gimnasia	Kirolaria
Soto Carazo, Bruno	189/24/T	Halterofilia	Teknikaria
Soto Fernandez, Bruno	1284/24/D	Halterofilia	Kirolaria
Tolosa Inda, Ainhoa	1279/24/D	Piraguismoa	Kirolaria
Ugarte Valeta, Laura	1280/24/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Uria Ibarluzea, Jone	1270/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Urkaregi Sanz, Eñaut	1230/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Urresti Gandiaga, Ane	1232/24/D	Herri kirolak	Kirolaria
Usabiaga Balerdi, Ana	185/24/T	Txirrindularitza	Teknikaria
Vadillo Crespo, Eneritz	1265/24/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Zudaire Borrez, Nahia	1298/24/D	Kirol egokitua	Kirolaria

II. ERANSKINA

GOI MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI ETA EPAILE IZENDATU GABEKOEN ZERRENDA

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Agirre Egaña, Aitor	1260/24/D	Txirrindularitza	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. 2024ko Espainiako Txirrindularitza txapelketako emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzen den lehiaketa bat.
Atchoarena Masterson, Xan	1250/24/D	Surfa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Aurkezten duen emaitza Word surf league ligako lehiaketa bakar baten emaitza da; liga honek hainbat jardunaldi (lehiaketa) ditu, eta azken sailkapenean 12. postuan geratu da. Surfaren kasuan, Europako txapelketa Santa Cruzen (POR) egin zen 2024ko uztailaren 19tik 28ra.
Azkue Muxika, Uxue	1212/24/D	Gimnastika	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Aurkezten duen lehiaketa Europako Gimnasia Aerobikoa 2023 txapelketa da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren eranskinaren arabera: Europako txapelketa baten emaitza, kategoria absolutuan eta proba ez-olimpikoan (B multzoa), Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, txapelketa horrek baldintza hauek bete beharko ditu, modu metagarrian: a) Dagokion Europako edo nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olimpikoan sartuta ez dauden modalitateetako B multzoko eta C taldeko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturik egotea. 2023ko Europako Gimnasia Aerobikoaren Txapelketan, bere proban 5 herrialdek hartzen dute parte.

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Azpiri Ocamica, Aimar	1251/24/D	Arrauna	Ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak. Urte berean honako hiru lehiaketa hauek irabaztea: 1. Eusko Label ligan 1. Kontxako estropadako eta 1. Espainiako Traineru Txapelketan. 2024ko Espainiako Batelen txapelketako emaitzak aurkeztu ditu.
Bijueska Fernandez, Egoitz	1299/24/D	Patinajea	Ez du 4.1.a) artikulua betetzen. 16 urte edo gehiago beteta izatea: alde horretatik, baloratzen diren kirol merezimenduak lortu dituen momentuan kirolariak duen adina hartuko da aintzat.
Clavero Perianes, Irati	1219/24/D	Rugbia	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. 2024ko CESA errugbi XVeko txapelketako emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzen den lehiaketa bat.
Egiguren Santamaria, Oskitx	1210/24/D	Txirrindularitza	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. 2023ko txirrindularitzako San Andres Trofeoko emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzen den lehiaketa bat.
Eskisabel Jauregi, Irular	1295/24/D	Neguko kirolak	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Iraupen-eskiko 2024ko Espainiako Txapelketako emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzen den lehiaketa bat.
Ezpeleta Lopetegi, Hodei	1213/24/D	Herri kirolak	Ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak. Euskadiko txapelketako emaitza aurkezten du.
Fernandez de Corres Zubia, Iker	1282/24/D	Errugbia	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Estatuko errugbi ligako emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzen den lehiaketa bat.

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Fernandez Goenaga, Laine	1261/24/D	Surfa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Ordezko gisa agertzen da deialdian. Ez du lehiaketan parte hartzen.
Gallastegui Garate, Josu	1215/24/D	Futbola	Ez du aurkeztu baloratu beharreko kirol-merezimenduak justifikatzen dituen dokumentaziorik.
Laso Ponciano, Naia	1293/24/D	Patinajea	Ez du 4.1.a) artikulua betetzen. 16 urte edo gehiago beteta izatea: alde horretatik, baloratzaren diren kirol merezimenduak lortu dituen momentuan kirolariak duen adina hartuko da aintzat.
Lejardi Larrinaga, Arai	1263/24/D	Euskal pilota	Txapelketak ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak. Aurkezten duen lehiaketan, 2024ko Munduko Zesta Txapelketan (22 urtez azpikoetan) 3 herrialdek baino ez dute parte hartu. Lehiaketa absolutua baino lehenagoko lehiaketetan, gutxienez 8 herrialdek parte hartu behar dute, Balorazio Batzordeak baloratu ahal izateko.
Martiarena Olaso, Leire	1237/24/D	Atletismoa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. 2024ko Espainiako Atletismo Txapelketako emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzaren den lehiaketa bat.
Moja Alonso, Gadea	1299/24/D	Patinajea	Ez du 4.1.a) artikulua betetzen. 16 urte edo gehiago beteta izatea: alde horretatik, baloratzaren diren kirol merezimenduak lortu dituen momentuan kirolariak duen adina hartuko da aintzat.
Morales Garmendia, Adriana	1225/24/D	Hipika	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Emaitzak aurkezten ditu hipikako CSN2* Laredo Horse & Fun Week 2024 lehiaketan, ez da baloratzaren den lehiaketa bat.
Nazabal Elola, Urko	1243/24/D	Txirrindularitza	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. 2024ko Espainiako Txirrindularitza Txapelketako emaitzak aurkezten ditu, ez da baloratzaren den lehiaketa bat.

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Ochoa Torres, Ariane	1221/24/D	Surfa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Munduko Txapelketako 37. postua egiaztatzen du eta txapelketa honetan eskatzen den meritua lehenengo 32en artean egotea da.
Peña Surga, Aitana	1214/24/D	Motoziklismoa	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Txapelketa hainbat jardunalditan egiten den lehiaketetan (lehiaketa desberdinak), hala nola motokrosean, azken sailkapena baloratzen da. Jardunaldi edo lehiaketa bakar bateko emaitza egiaztatzen du, bai 2023. denboraldian, bai 2024. denboraldian. Munduko Txapelketako azken sailkapeneko posturik onena 40.a da 2024ko txapelketan, eta txapelketa horretan eskatzen den meritua lehenengo 16en artean egotea da.
Quintana Ruiz de Azua, Irati	1218/24/D	Gimnastika	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Aurkezten duen lehiaketa Europako Gimnasia Aerobikoa 2023 txapelketa da. Goi-mailako kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako irizpide teknikoak eta kirol-irizpideak aldatzen dituen Kulturako sailburuaren 2011ko ekainaren 20ko Aginduaren eranskinaren arabera: Europako txapelketa baten emaitza, kategoria absolutuan eta proba ez-olimpikoan (B multzoa), Ebaluazio Batzordeak baloratu ahal izateko, txapelketa horrek baldintza hauek bete beharko ditu, modu metagarrian: a) Dagokion Europako edo nazioarteko federazioak antolatua izatea. b) Programa olimpikoan sartuta ez dauden modalitateetako B multzoko eta C taldeko lehiaketen kasuan, gutxienez 8 herrialde ordezkaturik egotea. 2023ko Europako Gimnasia Aerobikoaren Txapelketan, bere proban 5 herrialdek hartzen dute parte.

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Rincon Madinabeitia, Ane	1236/24/D	Errugbia	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Aurkeztutako emaitza Espainiako errugbiko selekzioarekin egindako kontzentrazioa da, ez da balioesten.
Solan Domenech, Aitana	1266/24/D	Padela	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. Padeleko Arabako Grand Slama, ez da baloratzen den lehiaketa bat.
Urizar Bengoetxea, Jokin	1211/24/D	Arrauna	Txapelketak ez ditu betetzen Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian eskatzen diren kirol-bikaintasuneko irizpideak. Urte berean irabaztea hiru lehiaketa hauek: Eusko Label ligako 1.a, Kontxako estropadako 1.a eta Espainiako Traineru Txapelketan. 2023ko Bizkaiko Traineru Txapelketako emaitzak aurkeztu ditu.
Urkiola Montoya, Elur	1217/24/D	Triatloia	Ez du 4.1.d) artikulua betetzen. Ez du egiaztatu Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuaren I. eranskinean adierazitako kirol-merezimendurik. Hau da, Joko Olinpikoetan, Munduko Txapelketetan eta/edo Europako Txapelketetan eskatzen den gutxieneko emaitza lortzea, eskaera egin duen urtean edo aurrekoan. 2024ko Espainiako Triatloi Txapelketako emaitzak aurkeztu ditu, ez da baloratzen den lehiaketa bat.
Ibarra Otsoa de Txintxetru, Martín	190/24/T	Patinajea	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra edo urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena). Jarduera Fisikoen Animazioko eta Kiroletako goi-mailako teknikariaren titulua aurkeztu du. Ez du 6.1.e) artikulua betetzen Ez da goi-mailako kirolari deklaraturako pertsona baten kirol-prestakuntzaren arduradun tekniko nagusia dela, eta horretarako, kirolariak egindako zinpeko adierazpen bat aurkeztu behar du.

Abizenak, Izena	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
Sainz Diego, Manuel	188/24/T	Tiro Olimpikoa	Ez du 6.1.d) artikulua betetzen. Titulu akademiko hauetakoren bat izatea egiaztatzea: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien lizentziatura, edo Kirol Errendimenduko Unibertsitate Masterra edo urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako Goi Mailako Kirol Teknikari titulazioa, edo horiek ordeztzen dituen edozein titulazio akademiko (1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol-irakaskuntzen ordenamendu orokorra ezartzen duena). Tiro olimpikoko I.mailako titulua eta 21st «C» coaches Licence delakoa aurkezten du.
Txintxurreta Larrea, Ekaitz	187/24/T		Ez du dokumentazioa aurkezten.